Karlisten gerrateko Kantak (I)

Gerra baten gaiñian
nai neuke itz egin,
zuzen goiazelakotzat
igual uts egin.

1977ko urtarrilaren 3an hil zen Eibarren 92 urtekin Joakin Olañeta, "Ertzil" izenez ezagunago genuen agure bizkorra. Markina-Etxebarri parteko Ertzil baserrian jaioa zen, Eibarko mugatik hurbil. Munduz asko ibilia zen baina bere bizitzako parterik gehiena Eibarren igaro zuen. Euskal abertzaletasunaren hasieretan "bizkaitarren" alde ipini zen eta, gezurra badirudi ere, ideiaz hurbilen zebiltzaten karlistak zituzten etsairik handienak, naiz foruzale edo naiz bestelako. Abertzale horietakoa genuen Ertzil ere, eta inoiz ez nuen jakin gurasoak karlistak zituen ala ez. Karlistenik etzuen ezer entzuterik nahi.

Gaztaroan edo haurtzaroan ikasirik: Ertzilek, karlisten kontrako kanta asko zekizkin eta konfiantzazko pertsonei horiek kantatzea gustatzen zitzaion. Bere zahartzaroan, bizpairu bertsoz oroitzen zenean, gure etxera etortzen zitzaigun horiek kantatzera eta magnetofonoz jasotzen hasi nintzen. Guziak bertsolarien doinu berezi batean kantatzen zituen, zortziko txikian gainera.

Ertzilek, esaten dutenez, gure mende honen hasieretatik, Bizkaian eta Gipuzkoan (Bizkaiakin muga egiten duen Debarru partean), baserririk baserri lan handia egin omen zuen abertzaleentzat botoak irabazten, eta, ez dakit zergatik, baina honako bertso hauek erabiliko zituela iduritzen zait, karlista jendea abertzaletzeko. Garai hartan "bizkaitartu" edo "bizkaitarristatu"; hala esan ohi zen. Irakurlea laster ohartuko denez, karlistak parregarri uzteko asmatuak dira. Zalantzarik gabe, bigarren karlisten gerrate garai inguruan liberalak jarritako bertsoak. Liberalak edo karlista desengañatuak.

Somorrostroko gaiñian
gerra jaku asi;
Don Kastor jeneralori
karlisten nagusi.
Balaso bat artuta
lurrera zan jausi;
baltzak jarraian eta
zuriok igesi
gerrarik ezin leike
orrela irabazi.

Hor aipatzen duen jenerala don Kastor Andetxaga izan behar zuen. Baltzak, liberalak ziren eta zuriak, karlistak.

Karlistok, Markina ingurua zuten feudoetarik bat eta inguru horietako pertsonaiak bakoitzaren joera edo grinegatik ridikulizatu nahi dira.

Hala dira ondoko hauek, Ermuko Valdespinako markesagandik hasita. Orbetarra zen berau eta karlisten buruzagi:

Markes zaarra ta Dorregaray
irugarren Elio,
gerra au irabazteko
ez dabe balio.
Guk naikua egin dogu
agur eta adio;
biarra bada ugari
zuentzat oindio.
Berrizko seme bat dogu
Franzisko Zengoita,
Gobernadore militar
Markiñan jarrita;
jan da edan sendo egin
iñok ekarrita;
adiskide izan biar dau
Doña Margarita.
Berrizko jeneral orrek
alberti antzia
Urkiolako mendian
trintxeragintzia.
Eztaukanari emon ez
daukanari kentzia;
auxe dok euskaldun jendia
bendean artzia.

(Beste batean, bertso honen bukaeran, honako hau kantatu zidan: "Au da Euskalerrian/naastiak jartzia").

Markiñako Zabalak
urten dau mendira;
pauso ori narraztuta
jatxi zan errira.
Leengo jai-goiz batian
jarri naiz begira:
gizonak errenditzeko,
andrak onak dira.
Agure begi txiki,
Markiñako Txirten,
etxian zer janik ezta
komandante irten.
Amaika andrari negar
erain diok aurten.

Iturri ta Munioz
geure nagusiak,
arto pixkat jan ezinik
askok ikusiak.
Komandante izateko
gizon itxusiak;
eiñgo deutse justizia
goiko Nagusiak.

Liberalak jarritako bertsoak edo etsipenez desengaiñatutako karlistak heurak. Baina, dena dela, euskaldun askoren irakasbide ez badira ere, hor daude gure historiaren agiritzat. Ertzil zenaren kezka zen bertso horiek betiko galduko ote ziren, eta horregatik kantatzen zizkidan, norbaitek gerorako gorde ahal izateko. Jarri zidan kondizio bakarra, azken gerrateko izua hezurretaraino sartua zuenez, bera bizi zen artean ez argitaratzeko, edo, beinikpehin, ez beintzat Franco-ren errejimenak irauntze zuen artean. Epe horiek igaro zirenez, ordua deritzat bertsook argitara emateko.

Juan SAN MARTIN

Hace ya unos años que el anciano llamado Joaquin Olañeta, más conocido por "Ertzil", en memoria del caserio donde nació en 1885, confiado por mi euskarofilia, me visitaba frecuentemente para contarme los versos de la segunda guerra carlista, en la medida que le venían a la memoria. Según me contaba, había aprendido en su niñez y el repertorio era mucho mayor de lo que iba recordando. Y, aunque a veces me repetía los mismos, procuré prestarle atención y recoger cuanto pude al magnetofón, por considerar testimonios de la historia y una aportación más para nuestra literatura oral.

Joaquin Olañeta, que ... enero de 1977, según ... dido, fue un hombre ... durante su juventud ... tismo del primer movimiento ... nalista vasco en el ... El era un "bizkaitarra".

Los versos que me cantaba ... pre en **zortziko** menor ... melodía muy particular ... desprende del contenido ... de los liberales o de los ... sengañados, y tienen por ... el ridiculizar a los cabecillas ... carlistas. Es muy posible ... tzil" utilizara en sus campañas ... selitisticas. Pero nunca ... sus progenitores eran ... berales. Intuyo en que ... carlistas desengañados ... conducta de sus jefes.

"Ertzil" era un hombre ... zado por la última guerra ... aunque lo versos que ... taba no tenían relación ... los acontecimientos de ... pasado, me insistía ... en que no diera a la ... mientras él vivía, o ... mientras durara el régimen ... quista.

El lector podrá comprobar ... los presentes, con la ... de los bersolaris ... zar, muy principalmente ... cillas del carlismo ... Marquina, que era ... feudos, y únicamente ... ataques personales.

Don Odon-en omenez

Laurogei eta sei urte egingo ditu Martxoaren 5.ean. Itsuturik. Nolanahi ere, lanerako gogo haundiaz apaindua Gasteizen azken mendean izandako sendi garrantzitsuenetako batetan sortutako gizona. Gaztarotik euskaldun ikasia. Euskaltzale porrokatua. Euskaltzain ohorezkoa. Historiegile eta linguista. Irakaskintzan ihardun izandakoa. Hizlari eta artikuluegilea.

Don Odon Apraiz dugu pertsonaia hau. Izenari erantsita begiruneko **Don** *titulua daraman gizakumerik denok ezagutzen dugu. Herra hor, esterako, herriko erretore jauna, mediku eta maixu zaharrak...; aparteko kasua Don (On) Joxemigelena da. Bada, hain zuzen ere, berberaxe gertatzen zaigu —neri behintzat, bai— Don Odon Apraizekin. Ez galdetu arrazoia, ez baitnuke zio egokirik aurkitu ahal izango. Baina, hari buruz mintzatzean beti irtetzen zait Don hori aurretik.*

Behinola aipatu dudan legez, bederatzi urte nituen Don Odon ezagutu nuenean. Gasteizko Ramiro de Maeztu Institutuan ziharduen orduan eta Batxillerrerako Sarrera egiteko hara jo behar genuen Arrasaten ikasten ari ginenok. Geografia ematen ei zuen garai hartan eta azterketa egunean "El Ebro" galdetu zidala gogoratzen dut oraindik, atzo izan balitz bezala: "... nace en Fontibre, cerca de Reinosa, provincia de Santander".

Zein zen urte ahaietan Don Odon guretzat? Gutxi, oso gutxi ikusten zuen katedradun bat. Banaka batzuk Don Odonek euskaraz ba zekiela ohartuko ziren. Hortik aparte, besterik ez genekien gizon haren gain. Eta zer dakigu gaurregun? Batzuen ezjakintasuna arindu nahian lerro hauek idazten jarri naiz, irakasle zaharrari nolabaiteko justizia egin nahi diodalarik. Ondoko xehetasunik gehienak lagun dudan Ixidoro Baztarrika beneditarrak gerturiko **"Datos biográficos y escritos de Odon de Apraiz y Buesa"** *idazkitik atera ditut.*

Gure pertsonaia hau 1896.ko Martxoaren 5.ean jaio zen Gasteizen. Bere sendiak kulturarekiko joera erakutsi du beti eta bera ezin zitekeen gutxiago izan. Hiriburuko Santa Maria Ikastetxean egin zituen lehen ikasketak, Batxillerra Institutuan amaitzeko. Filosofia eta Letras ikasketei ekin zien Salamankan, eta Deustun beste ikasturte bat egin ondoren Madrilgo Unibertsitatean amaitu zuen karrera.

Ikasketa hauezaz berari gehien komeni zitzaizkion gaietaz arduratu zen, eta urteetan zehar zernolako ikastaro eta mintegi egin duen azaltzen ipiniko bagina zerrenda luze bat aterako genuke. Filologia eta Linguistika izan dira, gehien batez, aukeratutako gaiak eta Sorbona, Zurich eta Italiako Piamonten eman zuen zenbait urte berezitasun hoiek lortzen.

Baina garai horretaraino iritsi aurretik Don Odonek beste bide bat aukeratu du: euskararena. Hamalau urte dituela hasten da euskara ikasten. Geroago, 1913.ko udan, Aramaioko "Goiko Errota" baserrian euskara bizi egiten du Apraiz gazteak. Iturritik edaten duela esan daiteke. Eta honek **Euskerri** *hobeto ezagutzeko aukera dakarkio. Menderatu egiten du euskara eta zenbait ikastarotan hartzen du parte irakasle bezala.*

1919.ko Urriaren 26.an euskaltzain urgazle izendatzen dute, euskararen alde egindako lanarengatik. Eta tituluen arteko baita beste bi ere aipa daitezke: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte eta Euskaltzaindiaren ohorezkoenak. Don Odon Apraizen ogibidea irakaskintzan aurkitzen da 1926 geroztik. Urte hartan eta 1933.arte Barzelonako Unibertsitatean Geografia eta Historia Modernoa irakasten du. Gero gai berdinak Eibar (1933-35), Santa Cruz de Tenerifeko La Laguna (1935-42), Reus (1943-50) eta Gasteizko (1950-66) Institutuetan eman ditu. 1932.an Barzelonan aragoera edo Aragoiko dialektoaz eman zuen ikastaro bat.

Baina Don Odonen lanaren garrantzia ez dugu irakaskintzan bilatu behar, ikertzaile eta idazle bezala sorturiko produkzioan, baizik. Aldizkari nahiz egunkarietan erabilitako gaien bitartez, historia, geografia linguistikoa, toponimia, filologia eta bibliografia alderdiak aztertu ditu. Oraindik gaurregun ere bere artikuluak irakurtzeko aukera izaten dugu —nahiz eta maiztasuna guk nahi baino txikiagoa izan, azaldu dudan legez erabat itsuturik baitago—, eta hoiek irakurtzean poztu egiten garela esango nuke, gutxitan aurki daitekeen freskotasun lasaigarriaz topo egiten baitugu.

Inorekiko loturagabeko abertzaletzat hartzen du bere burua Don Odonek. Eta honek askatasun haundi batez mintzatzeko posibilitatea ematen dio. Entzun behar zaio gure Aberriari buruzko bere eritzia! Bere hitzetan ipintzen duen indarrak zirrara bizi bat sortzen du gugan. Hain sutsu den Don Odon!

Era Araba eta Euskal Herriaren alde hainbeste lan egin duen gizon honi omenaldi txiki bat eskaini nahi izan diote bere lagunek. Aspaldidanik egosten ari zen omenezko ekintza gauzatu ahal izan da, azkenik. Eta bilduma oso baten hasiera besterik ez bada izan, **"Odon Apraizi omenaldia"** *izeneko liburu ederra kaleratu berri da, Arabako Foru Aldundiaren Kultur Kontseiluaren babespean. Berrogei eta bi euskaltzalek hartu du parte liburuan, bertan azaltzen diren artikuluen bidez. Ez noa izenik aipatzera, denon aipamena egin beharko baitnuke, partehartzaile guztien goi-maila dela eta. Orain Don Odonen lanak bilduko dituzten beste liburuen zai geratzen gara.*

Don Odon Apraiz Buesa. Unamuno eta Barojaren zalea. Buhamea. Artxibategi biziduna. Langilea. Gure Herriak ahantz ezin dezakeen gizona.

Josemari
VELEZ DE MENDIZABAL

Nace ahora 86 años —5 de Marzo— en el seno de una de esas familias vitorianas "de toda la vida", con inclinación al desarrollo de inquietudes literarias. Hizo los primeros estudios en el Colegio de Santa María de la capital alavesa, para terminar el Bachiller en el Instituto vitoriano, teniendo como directores a su tío Julián de Apraiz y a Federico Baraibar, a quienes profesa gran cariño. Comienza los estudios de Filosofía y Letras en Salamanca, y luego de pasar un curso en Deusto, se traslada a Madrid para concluir la carrera. Acude a todo tipo de seminarios y cursillos sobre Filología y Lingüística. Se especializa en estas materias en las Universidades de la Sorbona, Zurich y Piamonte.

Siendo todavía un chaval, comienza a interesarse por el euskera. En 1912 escribe su primer artículo en este idioma y lo publica en el semanario Bizkaitarra. En el verano de 1913 se instala en el caserío "Goiko Errota" de Aramaiona, para poder practicar el idioma vasco. Es curioso cómo setenta años más tarde recuerda perfectamente ... rada vivida en el ... rio. De la misma ... milia Jauregui le ... pese a no haber ... por allí.

En 1919 es nombrado ... correspondiente de la ... la Lengua Vasca. Y ... rado de trabajar en ... A partir del año 1926 ... enseñanza, cumpliendo ... siete años en la Universidad ... celona, donde imparte ... Historia Moderna ... ha pasado por los ... Eibar, La Laguna ... donde se jubila en ...

En su largo ... profundizado en ... ría, Geografía Lingüística ... Toponimia... que le ... acreedor a ser ... uno de los escritores ... mayor producción ... día publica ocasionalmente ... en la prensa. Artículos ... esa gracia especial ... imponer a la mayoría ... y que hace que sean ... galo para todo aquel ... en su lectura.

Considerándose a sí ... patriota independiente ... durante toda su vida ... como él acostumbra ... nuestro País, ... que ... rida Navarra, ... decir— "...madre ... 1968 es académico ... kaltzaindia, y en ... socio honorario de la ...

Esta es, a grandes ... nición que en este ... demos hacer de uno ... que más ha investigado ... identidad euskaldun ... Odon Apraiz Buesa ... se ha publicado ... Consejo de Cultura ... Foral alavesa el libro ... Odon de Apraiz", que ... el primero de una ... quiere dedicar, como ... a sus méritos. Han ... este primer tomo ... vascos de la máxima ... cual ya viene a ... la importancia de la ...

Don Odon Apraiz ... lólogo, articulista ...

COMERCIO EXTERIOR EN EIBAR

Curso del Instituto de la Pequeña y Mediana Empresa Industrial (I.M.P.I.)

Organización: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa.

Celebración: En la Escuela de Armería de Eibar, a partir del 15 de marzo, los lunes, de 4 a 7,30 de la tarde. Duración máxima 42 horas.

El I.M.P.I. entregará a los asistentes —el curso se orienta hacia empresarios y directivos de la pequeña y mediana empresa industrial— el correspondiente diploma acreditativo de su participación.

Información: En la propia Cámara. Aguirre Miramón, 2. San Sebastián.

Telf. 27 21 00. Plazas limitadas.